

ZERK BALDINTZATZEN DU EUSKADIKO ELIKADURA OSASUNGARRIA?

Pertsonen elikadura baldintzatzen duten hainbat faktore berezi daude Euskadin, eta aintzat hartu behar dira ekimenak pentsatzekoan, ingurumen aldetik eta ekonomikoki zein sozialki iraunkorrak izan daitezen.

BALDINTZATZAILE EKONOMIKOAK

Euskal Autonomia Erkidegoan soro gutxi dagoenez, nekazaritza-elikagai industria ez da gure ekonomiaren sektore garatuena. Nolanahi ere, 846 milioi euroko ekarpena egiten dio Euskadiko BPGari, eta 14.500 baino pertsona gehiagori ematen dio lana; hala, lehen sektorearen agente bultzatzaileetako bat da, eta nabarmen lagundu dio Euskadiko ekonomiari eusten, azken atzeraldi ekonomiko honetan. Gainera, herritarrek izugarri estimatzen dituzten sasoiko kalitatezko produktuak eskaintzen dizkigu Euskadiko nekazaritza-elikagai industriak.

Ekoizpenetik harago, gure ekonomiaren beste sektore indartsu eta beharrezko batzuek ere parte hartzen dute elikaduran. Ostalaritzak edo catering enpresek eta sukalde zentralak, adibidez; izan ere, milaka pertsona artatzen dituzte egunero, eta funtzio garrantzitsua betetzen dute ekonomian zein herrialdeko elikadura ohituretan.

BALDINTZATZAILE SOZIALAK

Gaur egungo testuinguru ekonomikoa dela-eta, area-gotu egin da hainbat sektore sozialen kalteberatasuna, eta dieta osasungarri baterako beharrezkoak diren elikagai jakin batzuk -produktu freskoak, adibidez- eskuratzeko edo horiek behar bezala prestatzeko gaitasunari eragin dio.

Kontuan eduki behar dugu, halaber, gaitasun edo eza-gutza eza dela-eta, elikadura eta nutrizio aldetik desgokiak diren ohiturak dituztela talde sozial batzuek.

Euskadin, Mendebaldeko gainerako herrialdeetan bezala, gozo eta edari azukredun gehiegi kontsumitzen dira, elikadura-osagarriak hartzen dira, batere osasungarriak ez diren prestaketa gehiegi egiten dira eta abar.



BALDINTZATZAILE KULTURALAK

Euskadin, plazer-iturriaz eta bertako zein turistentzako erakargarri nagusietako bat izateaz gainera, kultura eta tradizioa da jatea. Euskadin ongi jaten den ideia oso zabaldurik dago nazioartean, dela hemen dugun Michelin izar piloagatik, dela jatetxe eta tabernetako kalitatezko eskaintza zabalagatik, dela pintxoak jateko

edo senide eta lagunekin elkarte bateko mahai baten inguruan elkartzeko ohituragatik, besteak beste. Kultur dimentsio horrekin lotuta, ekonomia jarduera handia dago gastronomiaren inguruan, eta berrikuntzaren eta abangoardiaren erreferente dira sukaldariak. Euskaldunontzat oso garrantzitsua bada ere, gero eta azkarrago bizi gara, eta kontuan

hartzekoak diren moda eta korronte berriak sortzen ari dira. Izan ere, usadio eta ohitura nahiko osasungarriak sustraituta dauden inguru honetan, hain osasungarriak ez diren elikatze-moduak ari dira lekua hartzen: janari azkarra, koipe, gatz eta azukre gehiegirekin egindako janari azkarra eta abar.

